

I+Gan egindako inbertsioaren 2022rako balioespena

2022ko martxoa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

 **innobasque**

Berrikuntzaren Euskal Agentzia
Agencia Vasca de la Innovación

Aurrekariak

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planak esleitzen dion ebaluazio-funtzioaren baitan, Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziak tresna estatistikoko bat garatu zuen 2019an, Euskadiko I+G inbertsioa aurretiaz balioesten duena, lurraldeko berrikuntza-politikak bideratzen laguntzeko.

Tresna horrek ondorengo erreferentziak dituen eredu estatistiko batean oinarritzen da; batetik, EAeko I+G aurrekontuak eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren barne-produktu gordinaren (BPG) hazkunde-aurreikuspena, eta, bestetik, aldagai horiek enpresetako I+Garekin duten korrelazioa. Aipatutako azken balioespen hori Euskadiko I+Gn trakzio gaitasun handia duten 12 enpresa-talderen aurreikuspenekin doitzen da. Enpresa horiek guztiak Berrikuntzaren Euskal Agentziako kide dira, eta I+Garen enpresa-finantzaketaren % 40 osatzen dute.

Eustat Euskal Estatistika Erakundearekin eta Orkestra Lehiakortasunerako Euskal Institutuarekin kontrastatu genuen eredua, eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak eredua diseinatzen lagundu zigun. Lau ekitaldiren ondoren, balioespenen eta benetako balioen arteko errore-marjina 2020an baino ez da izan % 1 baino handiagoa, pandemia dela-eta.

Laugarren edizio honetan, 2022ko inbertsioa balioetsi dugu. Horretarako, 2020ko azken datu estatistikoak hartu ditugu oinarri (2021eko azaroan argitaratu zirenak) eta 2021eko balioak zenbatetsi ditugu.

Euskadiko I+G inbertsioa % 5,2 haziko da 2022an

	2020 erreala	2021 balioetsia	2022 balioetsia
I+Gn inbertsioa (milioiak eurotan)	1.490 M€	1.556 M€	1.637 M€
Urte arteko aldakuntza (ehunekoa)	+%0,6	+%4,4	+%5,2

Enpresen eta administrazio publikoen inbertsioek bultzatuko dute I+Gren hazkundera 2022an

	GUZTIRA	Enpresak	Administrazioak	Nazioartekoa	Beste iturriak
I+Gn inbertsioa 2022an (milioiak eurotan)	1.637 M€	881 M€	567 M€	146 M€	43 M€
Urte arteko aldakuntza (ehunekoa)	+%5,2	+%4,3	+%6,3	+%7,4	+%2,0

2022an, Euskadin I+Gn egindako inbertsioa 1.637 milioi eurokoa izango da, eta % 5,2 haziko da, 2021ekoarekin alderatuta. Zehazki:

- 881 milioi euro enpresetatik etorriko dira. Enpresen inbertsioa % 4,3 haziko dela aurreikusten dugu.
- 567 milioi euro administrazio publikoetatik etorriko dira (Eusko Jaurlaritzaren Foru Aldundiak eta Estatuko Administrazio Orokorra). Administrazio publikoen inbertsioa % 6,3 haziko da, batik bat Eusko Jaurlaritzaren ahaleginari esker. Izan ere, % 10 igoko du I+Gren aurrekontua. Azpimarratu nahi dugu NextGenerationEU funtsak, gehienbat Estatuko Administrazio Orokorra kudeatzen dituenak, 2022ko bigarren seihilekoan helduko direla ziur aski, deialdietan izandako atzerapenen ondorioz.
- Gainontzeko inbertsioa, alde batetik, nazioarteko finantzaketatik etorriko da, Horizonte Europa esparru-programa berriari esker; eta, bestetik, beste iturri batzuetatik, hala nola unibertsitateetatik eta irabazi-asmorik gabeko erakundeetatik etorritako funtsetatik.

Datozen orrialdeetan azalduko ditugu 2022ko finantzaketa-iturri bakoitzari dagokion kalkulua egiteko erabilitako balioespenak, bai eta hori egin ahal izateko 2021erako balioetsitako datuak ere.

Enpresek % 4,3 igoko dute I+Gari emandako finantzaketa

Enpresek I+Gan egindako inbertsioak indartuko dituztela aurreikusten dugu, eta % 4,3 haziko direla 2022an. Horren ondorioz, 2022ko inbertsioa 881 milioi eurokoa izango dela aurreikusten dugu. Euskadiko enpresa-finantzaketaren gehieneko historikoa litzateke hori.

	2020 erreala	2021 balioetsia	2022 balioetsia
I+Gren enpresa-finantzaketa (milioiak eurotan)	813 M€	845 M€	881 M€
Urte arteko aldakuntza (ehunekoa)	+%1,8	+%4,0	+%4,3

I+G alorreko enpresa-finantzaketa enpresek I+Gari emandako finantzaketa da. Edozein tamaina eta sektoreko (industria, zerbitzuak, etab.) enpresak dira, gehienbat pribatuak. Bertan sartzen dira:

- Enpresek I+G alorreko barne-jarduerei ematen dizkieten barne-funtsak (langile-gastuak, etab.),
- Hirugarren erakundeak I+G zerbitzuak emateko azpikontratatzeari (kontratu bidezko I+G), hala nola teknologia-zentroak, unibertsitateak edo beste enpresak.

2022an, finantzaketa publikoaren igoera azkartu egingo da, batik bat Eusko Jaurlaritzari esker

I+G alorreko finantzaketa publikoaren igoera azkartu egingo da, eta 2022an % 6,3 haziko da. Hazkunde hori Eusko Jaurlaritzak bultzatuko du batez ere. Izan ere, % 10 igoko du I+Garen aurrekontua.

	2020 errealia	2021 balioetsia	2022 balioetsia
I+Gren finantzaketa publikoa (milioiak eurotan)	510 M€	533 M€	567 M€
Urte arteko aldakuntza (ehunekoa)	+%1,8	+%4,6	+%6,3

Estatuko Administrazio Orokorrek bideratuko dituen NextGenerationEU funtsei dagokienez, urtearen bigarren erdian helduko direla espero dugu, dagozkien deialdietan izandako atzerapenak direla-eta. Funtsen kopurua kalkulatzeko, EAEk Estatuan duen pisu ekonomikoa (% 5,98) eta EAEk orain arte jasotako funtsetan I+Gari emandako partidek izandako pisua (% 4,16) hartu dituzte kontuan.

I+G alorreko finantzaketa publikoa honako administrazio publiko hauek I+Gari ematen dizkioten funtsak dira:

- Eusko Jaurlaritzak (Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila; Hezkuntza Saila; Osasun Saila; etab.).
- Foru Aldundiek eta beste toki-administrazioek.
- Estatuko Administrazio Orokorrek, NextGenerationEU funtsen zati handiena bideratuko duenak.

Funts horien barruan sartzen dira:

- I+G jarduerak egiteko enpresei, teknologia-zentroei, etab. emandako dirulaguntzak,
- unibertsitateetan eta ospitale publikoetan I+Gn¹ lan egiten duten langileen soldata,
- administrazio publikoek I+G alorreko barne-jarduera finantzatzeari ematen dizkioten funts propioak,
- eta hirugarren erakundeak I+G zerbitzuak emateko azpikontratatzeari (kontratu bidezko I+G).

¹ Sirkaste-ikertzaileek eta medikuek I+Gari eskaintzen dioten dedikazioaren kostuaren zati proportzionala hartzen dugu kontuan, bai eta ikertzaileen guztirako kostua ere.

Iturria: Eustaten eta Ekonomia eta Ogasun Sailaren datuekin guk geuk egindakoa.

Nazioarteko finantzaketa berriro haziko da

2021 eta 2022an, aurreikusten dugu nazioarteko finantzaketa hazten hasiko dela berriro, Horizonte Europa esparru-programa berriari esker.

Gainontzeko funtsak ere haziko dira, pandemia hasi aurreko ehunekoetara iritsi arte.

		2020 errealak	2021 balioetsia	2022 balioetsia
I+Gren nazioarteko finantzaketa	ZENBATEKOA (milioiak eurotan)	126 M€	136 M€	146 M€
	URTE ARTEKO ALDAKUNTZA	-%1,9	+%7,9	+%7,4
I+G alorrerako beste iturri batzuk	ZENBATEKOA (milioiak eurotan)	42 M€	42 M€	43 M€
	URTE ARTEKO ALDAKUNTZA	-%22,2	+%0,6	+2,0%

I+G alorreko nazioarteko finantzaketa publikoa (Europako Batzordea, etab.) zein pribatua (atzerriko enpresak, etab.) da, atzerriko erakundeek Euskadin egiten den I+Gari ematen diotena.

Funts horietan sartzen dira:

- nazioz gairik erakunde publikoak (adb., Europako Batzordeak esparru-programaren bidez) edo beste atzerriko erakunde publiko batzuek emandako dirulaguntzak, lurraldean I+G jarduerak egiteko,
- eta atzerriko erakundeek, batez ere enpresa pribatuek, I+G zerbitzuak azpikontratatzeko (kontratu bidezko I+G), lurraldean I+G jarduerak egiteko. Erakunde horiek atzerriko enpresa nagusiak izan daitezke, tokiko enpresa subsidiarioetan egiten den I+G finantzatzen dutenak.



Beste iturri batzuetatik etorritako finantzaketan sartzen dira goi-mailako irakaskuntzatik etorritako funtsak (unibertsitate publiko eta pribatuen, horiei atxikitako ikerketa-zentroen eta goi-mailako LH zentroen berezko funtsak eta azpikontratazioak), bai eta irabaz-asmorik gabeko erakunde pribatuetatik etorritakoak ere (hala nola fundazioen dohaintzak).

Kide diren trakzio gaitasun handiko enpresak

Euskadiko I+Gn trakzio gaitasun handia duten 12 enpresa-talderen aurreikuspenekin doitzen da I+G alorreko inbertsio pribatuaren balioespena. Enpresa horiek guztiak Berrikuntzaren Euskal Agentziako kide dira, eta Euskadiko I+G alorreko enpresa-finantzaketaren % 40 osatzen dute.



Enpresen I+Garen % 40
Sektore-ordezkaritza handia:
 metala, energia, garraioa eta
 farmazeutikoa.





ERANSKINAK

ERANSKINAK

Balioespen-ereduaren azalpena

Innobasqueren eredia I+Grako euskal aurrekontutik abiatzen da enpresa-finantzaketaren hazkundera balioesteko, eta, gero, Euskadiko I+G alorreko barne-gastua balioesten du urte horretan eta hurrengo urtean. Bi finantzaketa iturri horien arteko korrelazioa eta kausalitatea analisietan oinarritzen da eredia.

EUSKO JAURLARITZAREN I+GAREN AURREKONTUA

Lehendakaritzak Eusko Jaurlaritzaren I+Garen urte horretako eta hurrengo urteko aurrekontua ematen dio Innobasqueri.

GUZTIZKO GASTUAREN BALIOESPENAK

BPGAREN GAINEKO I+G GASTUAREN BALIOESPENA

Hori kalkulatzeko Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak egiten duen barne-produktu gordin nominalaren hazkunderaren balioespena hartzen dugu oinarri.

I+G ALORREKO BARNE-GASTUAREN BEHIN BETIKO BALIOESPENA

I+G finantzatzen duten iturri guztien hazkunderaren balioespenaren baturan oinarrituta kalkulatu dugu.

FINANTZAKETA-ITURRIAREN ARABERAKO BALIOESPENAK

A + **B'** + **C**

I+G alorreko administrazio publikoen finantzaketaren hazkunderaren balioespena

Administrazio publikoen finantzaketaren hazkundera balioesteko, euskal partiden hazkunderaren tasa leunduaren eta barne-produktu gordinaren hazkunde-tasaren funtzioa kalkulatu dugu.

A

Beste iturrien I+Grako finantzaketaren hazkunderaren balioespena

Nazioarteko finantzaketatik, goi-mailako hezkuntzatik eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuetatik etorritako finantzaketaren hazkundera kalkulatzeko, aurreko hiru urteetako hazkunde-tasen batz bestekoa egiten dugu.

C

Enpresa-finantzaketa enpresa-talde adierazgarriekin alderatzea

Enpresa-finantzaketan pisu handia duten gure enpresa-talde bazkideekin alderatzen dugu, doitu ahal izateko. Finantzaketa publikoaren hazkundera egokitzeko ere balio du alderatzeak.

B

B'

I+G alorreko enpresa-finantzaketaren hazkunderaren balioespena

Administrazio publikoen finantzaketaren hazkundera oinarrituta, enpresa-finantzaketaren hazkundera balioesten dugu.

ERANSKINAK

Ereduaren sendotasuna

Tresna eraginkorra da eredia,
eta bere baliozkotasuna
frogatu du.

	2018	2019	2020
Balioetsitako datua (milioiak eurotan)	1.434 M€	1.496 M€	1.543 M€
Benetako datua (milioiak eurotan)	1.423 M€	1.481 M€	1.490 M€
Balioespen-errorea (ehunekoa)	+%0,8	+%1,0	+%3,6



Pandemia hasi
zen urtea



Berrikuntzaren Euskal Agentzia
Agencia Vasca de la Innovación

Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkea
Laida Bidea, 203 | 48170 Zamudio

T. +34 944 209 488 | innobasque@innobasque.eus

www.innobasque.eus